

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Andoain jaietan murgiltzear da

Santa Krutz jaiak ostiralean hasi eta sei egunez luzatuko dira, aurtengoan / GEHIGARRI BEREZIA

Sagardoaren Txapelketa

Asteburu borobila Barrenetxea-Goikoetxea eta Ansa-Zaldua bikoteentzat / 5

Urki dantza taldeak erakustaldi aparta eskaini zuen Basteron, aurreko igandean / 4

Poxta Zahar gazte kuadrillen elkartearen 20. urteurrena, gogoangarria / 2-3

HAUR HEZKUNTZA

1. ZIKLOA (0-2 URTE)

www.magaleikastetxea.eus
www.urnietakosalesiarrak.com



salestarrak
MAGALE · URNIETA



Matrikula zabalik maiaztzean



Giro ederra izan zen goizean, San Juan plazan. AIURRI

"Ez dadila eten haria"

Askotariko ekintzez jositako egitarau oparoa osatu zuen Poxta Zaharrek iragan larunbaterako. Ehunka herritar bildu ziren elkartearen hogeitako ibilbidea omentzeko

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Berezia. Ezin zuen bestelakoa izan. Hogeitako ibilbidea ospatu zuen Poxta Zahar herriko gazte kuadrillen elkartek joan den larunbatean, eta, nola ospatu, gainera! Borobil joan zen eguna Urnietan: herri-kirolak, poteoa, bazkaria, bingo musikatua, manifestazioa, kontzertuak... Omenaldi ederra bi hamarkadaren ibilbideari aitortza egiteko.

Eguraldiaren gaineko iragarpen zalantzatiak ez ziren oztopo izan urnietarrak kalera atera eta San Juan plazan biltzeko. Goizeko 10:30ean, haurrek eman zioten hasiera egun osoko egitarau oparoari, *kontzejupean*, askotariko erronkez prestatutako herri-kirolekin. Hori horrela, gazteei pasa zieten, ondoren, lekukoa eta giro ederrean ibili ziren urnietarrak plazari, ko-

rrika-batean, itzuliak ematen, lokotxak biltzen baita zaku-saltoan edo soka-tiran ere.

Herri-kirolak amaitu bezain pronto atera zen eguzkia, eta, Urnietan barrena, tabernaz taberna izan ziren poteoan herritarrak, bazkalorduan, San Juan plazara ailegatu aurretik. Nork bere etxetik eraman zuen janaria, eta ehundik gora urnietarrek gozatu zuen eguerdi eguzkitsua. Tripa bapo-bapo, bingo musikatuekin ekin zioten arratsaldeari, doinu ezagun bezain dantzagarriekin, eta, jarraian, askotariko pankartak egiteko aukera izan zuten haurrek, gazteek eta helduek: "Ez dadila eten haria, aurrera Poxta Zahar!!!". Horixe zion pankarta nagusiak, arratsaldean egindako manifestazioan. Gora-behera, ezker-eskuin Idiazabal kalea zeharkatu eta kale kantoi guz-

tietara ailegatu ziren Poxta Zaharrek hogeitako ibilbidean egin dituen aldarrikapenak.

Iluntze musikatua, San Juan plazan

Iluntzearekin batera, herriko musikariak San Juan plazan jarritako oholtza gainera igo ziren. Hala, afalordura bitartean, 10:00etan Makulu, Nahi eta ezin eta The Roristak taldeek giro ezin hobea ipini zuten, beren doinu propioak eta abesti ezagunen bertsioak uztartuz. Gau partean, bestalde, DJ-en txanda izan zen: hori horrela, DJ Katxorrok, DJ Kyxok eta Pedramaxek, DJ Alabarrunak eta DJ Atxukarrok ordu txikiak arte luzatu zuten ospakizuna.

Azken bi hamarkadei ateratako zukua bezain gozoa izan zen herritarrentzat urteurren festa. Bien bitartean, harro begiratzen



Bingo musikatua xarma berezia eman zion bazkariari. AIURRI



Manifestazioa egin zuen Poxta Zaharrek herrian barrena. AIURRI

zuen Urnieta Mielak Marizulotik, zain, eta herrira jaisteko irrikaz, berak ere ospatu nahi

baitu bizia eman dion elkartearen hogeitako ibilbidea, haria eten ez dadin.



Askotariko probak izan ziren herri-kiroletan. AIURRI



Haurrek eman zioten hasiera egun osoko egitarauari. AIURRI



The Roristak taldeak kontzertua eman zuen. AIURRI



Giro ezin hobea jarri zuen Nahi eta ezin taldeak. AIURRI



10:00etan Makulu taldeak hasi zuen emanaldia. AIURRI



Jendetza erakarri zuten musika-kontzertuek. AIURRI



Adin guztiei begirako eguna izan zen. AIURRI



Iruñeko Trokeo dantzak taularatu zituzten Urkiko gazteek. AIURRI

Urki dantza taldearen emanaldi gogoangarria

Udaberriko emanaldi ikusgarria eskaini zuen Andoaingo-dantza taldeak. Adin guztietako kideak igo ziren taula gainera. Berezia izan zen emanaldia, hainbat gonbidatuk parte hartu baitzuten

Erredakzioa ANDOAIN

Euskal Herriko folkloreaken begiratu zabal eta ikusgarria emateaz gain, emankizuneko eskuorrietan azaltzen ez zen ezusteko polita eskaini zuten Urkiko ki-

deek. Izan ere, Lebiton konpartsa-ko buruhandi eta erraldoiak batu zitzaizkien. Honako dantza hauek egin zituzten: Agurra, Txankarrenkoa, Bizkaiako Zortziko eta Ezpata Dantza, Iribasko

Ingurutxoa, Baztango Dantzak, Iturbideren panderoa, Iturria eta Txapelua Plaza-Dantzak, Sardinarak, Iruñeko Trokeo-Dantzak eta La Dominguera. Ikusleek saioarekin gozatu zuten.



Iruñeko Trokeo dantzak taularatu zituzten Urkiko gazteek. AIURRI

Urki taldea eta Lebiton konpartsa



Lebiton konpartsa-ko kideak, Basteren. AIURRI

Urki eta lagunak Lebiton erraldoi eta buruhandien konpartsa-ko ikuskizuneko ezustea eman zuen. Amaiera aldera irten ziren, ikusleak aho bete hortz utziz. Dantzarekin batera, "La Dominguera" dantzatu zuten.



Fernando Gonzalez, Mattin Zalakain eta Enaitz Vazquez. AIURRI

Txistulariak eta trikitilariak Andoaingo Trikitilariak eta txistularien hirukotea izan ziren ekitaldian musika jartzeaz arduratu zirenak. Zalakain gaztetxoaren parte-hartzea nabarmentzekoa da. Bikain aritu zen danborrarekin, aita ondoan zuela.



Helduenek ere txalo zaparrada jaso zuten. AIURRI

Adin guztietako dantzariak Urki dantza taldeak haurrek, gazteak eta helduak igo zituen taula gainera. Beste herrietan zailtasunak dituzten bitartean, Andoainen sasoiko daudela erakutsi zuten.



Auzoetako Jai Batzordeetako kideak izango dira aurtengo pregoilariak. AIURRI

HASTEAREN DIRA ANDOAINEN SANTA KRUTZ JAIK





"Garrantzitsua da lekukoa hartzea, Kuadrillen Egunaren xarmak jarrai dezan"

AIZPEA ORIA ETA AIZPEA MINER KUADRILLEN EGUNeko ANTOLATZAILEAK Guztia lotuta dago Kuadrillen Egunerako: jolasak, bazkaria, bingo musikatua, trizibeherak, DJ Bull... Aspertzeko tarte gutxi izango da maiatzaren 2an

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN Hemen dira, ate-joka, Santa Krutz jaiak. Hala, ostiraletik, asteazkenera bitarte, makina bat ekin-tza izango dira, adin eta gustu guztiei begira. Horien artean, egun berezia da asteartea, Kuadrillen Eguna. Bertako antolatzaila-lanetan dabilta Aizpea Miner eta Aizpea Oria. Maiatzaren 2a egun seinatua da.

Azken txanpan murgilduta zaude-te. Zeintzuk dira azken egunetako eginbeharrak?

Aizpea Oria: Guztia lotuta daukagu, jada. Bilera-irekia egin genuen, jendea animatzeko, eta, orain, soilik, egunean bertan, guztia ondo joatea espero dugu.

Aizpea Miner: Aurten, kurio-oso da, ez dugulako sekula alde-

aurretik horren ondo lotuta utzi eguna lehenago. Gustora gaude egindakoarekin, nahiz eta eguna iritsi arte beti egon urduritasunak.

A.O.: Egitura bera jarraitzen da, urtero. Aurreko aldietan arrakasta izan zuten ekintzak mantentzen ahalegintzen gara, esaterako, bingo musikatua. Hortaz, ez daukagu berrikuntza handirik,



Aizpea Oria eta Aizpea Miner. AIURRI

besteak beste, joan den urtekoak mantendu ditugulako.

Nola bizitzen zenuen Kuadrillen Eguna antolakuntzan sartu aurretik?

A.M.: Ez genuen joateko aukerarik izan... Pandemia garaia zelako! Antolakuntzan sartuta ginen, Kuadrillen Egunean parte hartu genuen lehen aldian. Lantaldean sartu ginen, lekukoa hartzeko beharra ikusi genu-

lako, zaharragoak direnek, hainbat urtez antolatzen aritu ondoren, ardura emateko beharra sentitzen zutelako. Andoaindarrak gazte gisa, konpromisoa eta premia sentitzen genuen.

Guztia berria zen, baina ondo baino hobeto azaldu ziguten dena, dokumentuak eskura genituen eta erantzukizunak ezagutzen genituen. Pixkanaka-

ORMENDI

zorionak
amatxo!



 Kale Berria, 2.
 ANDOAIN.
 **943 591 806**
ormendikirolak@euskalnet.net

KIROLAK

gora
santa
krutz
jaiak!



SALDIAS

ARRANDEGIA

Gora Santakruzak!

ZUMEA KALEA, 5
ANDOAIN
943 590 704



Ernaitza

liburudenda

Liburu, joku hezitzaile eta oparietan aukera zabala

Gora Santakruzak! Gora Andoain!

Zumea, 9 ANDOAIN. 943 592 459 - ernaitza@yahoo.com





pixkanaka, guk hartu ditugu gure aurrekoek zituzten ardurak.

A.O.: Pasa den urtean, ikusle-aktiboak ginen, modu batera edo bestera esanda. Orain, ordea, antolaketa ibili gara, buru-belarri: hamabi bat kideko taldeak lotu du 400 pertsona inguruko bazkaria.

A.M.: Eta ez da, soilik, bazkaria, gainera. Goizean, jokoak antolatzen ditugu, kuadrillak ere animatzen has daitezten. Bazkaloan, DJ Bull etorri ohi da, eta berarekin ere hainbat kontu itxita utzi behar dira. Alegia, egun bakarreko antolaketa izan arren, baditu bere koplexutasunak.

A.O.: Lehengo urtean, adibidez, jende mordoxkak lagundu zigun mahaiak eta aulkiak jartzen. Ea, aurtan, aurreko urteko deialdia bezain arrakastatsua den, eta, horrela, azkar batean prestatzen dugun guztia bazkaltzeko. **Nola bizitzen duzue festa-eguna barrutik?**

A.O.: Txiki-txikitatik bizi izan ditugu Santakruzak, eta oso festazaleak gara. Gainerako egunetan baino erantzukizun zertxobait handiago sentitzen dugu



Miner, Oria eta lagunak iazko Kuadrillen Egunean. AIURRI

Kuadrillen Egunean, baina ez da batere astuna. Aurretik guztia ondo lotuta edukitzea da gakoa.

A.M.: Ez da jaieguna tokatzen. Hortaz, nahiz eta jendeak goizean lana egin edo atseden hartu egunak aurrera egin ahala, pixkanaka, gero eta kuadrilla gehiago batzen dira eta egun borobila izaten da guretzat. Gainera,

oso harreman polita daukagu lantaldean, eta malgutasunez biltzen gara.

Andoaindar gazteak elkar ezagutzeko espazio aproposa ere bada Kuadrillen Eguneko antolaketa-taldea, ezta?

A.O.: Bistaz guztiok ezagutzen genuen elkar, baina, antolaketaren bidez, harremanak estutu ditugu.

A.M.: Elkarlanean aritzeak konfiantza areagotu du gure artean. Jendea ezagutzeko modu polita da, aukera ona, guztiok jartzen dugulako gure partetik jaia aurrera atera ahal izateko.

Zein da zuentzat Kuadrillen Eguneko hitzordurik kuttunena?

A.O.: Lehengo urtean, trizibeheren unea izan zen onena. Errepikatuko dugu, traste berriekin.

A.M.: Oso arrakastatsua izan zen, eta inguruko zenbait herrik trizikloak eskatu zizkiguten gauza berbera antolatzeko. Bingo musikatuak ere oso erantzun ona eduki ohi du, euskal musika zaharra eta berria uztartzen ditugu. Giro polita sortzen da. **Zer esan esango zeniekete andoaindar gazteei?**

A.O.: Katea bat da antolaketa, eta garrantzitsua da lekukoa ematea. Guztiok dugu gustuko Kuadrillen Eguna, baina, antolaketa-lana egin behar da, guztia ondo atara dadin.

A.M.: Lagun-giroan biltzen gara. Finean, bakoitzak ahal duen konpromisoa hartzen du. Garrantzitsua da lekukoa hartzea, Kuadrillen Egunaren xarmak jarrai dezan. Asteartea tokatzen da aurtan, eta, astebarrua izanik, zailagoa izaten da etorri ahal izatea, ikasketengatik edo lanagatik.

Halere, jende dexente egon ohi da, egun berezia baita andoaindarrentzat.

A.O.: Esan bezala, lauhun laguneko langa igaro dugu!

A.M.: Ederki pasako dugu... Animatu dadila jendea!



BAIETZ GABE, EZETZ DA

JAIETAN ERASO SEXISTARIK EZ!!

EZ IZAN KONPLIZE



ANDOINGO UDALA

Kale Nagusia 26 ANDOAIN





GONZALEZ SASTRE

Gora Santa Krutzak!

Gora Santakruzak!

AMABI

hair eta gazte jantziak
0-16 urte



Zumea kalea, 15 - behea. ANDOAIN. 943 57 31 62






SEI EGUNEKO OSPAKIZUNAK SANTA KRUTZ JAIETAN

APIRILAK 28

OSTIRALA

16:00 Haur pregoia eta txokolatada Zumea plazan.

17:00 Judo eta karate erakustaldia Zumea plazan.

17:30 Puzgarriak Zumea plazan. Euriarekin Ondarreta.

18:30 Lebiton konpartsa eta Gora Kaletxiki txaranga, Plaza Moretik abiatuta.

18:30 Zumeatarraren danborradaren irteera.

19:00 Pregoa Zubiaurren, auzoetako jai batzordeen eskutik.

19:30 Txosnen irekiera Bekoplazan.

19:30 Harri jasotze herrikoa Bekoplazan: "II. Santa Krutz Harri Txikia".

20:00 Olagain txistulariak eta Alberto Agirre abesbatzaren emanaldia Santa Krutz elizan.

21:30 Futbito txapelketaren finala, Ondarreta ikastetxean.

23:00 Dukkha eta Bad Sound musika taldeak Bekoplazan.

APIRILAK 29

LARUNBATA

10:30 Artisanuak Zumea plazan.

11:00 Xake txapelketa haurrentzat, Juanita Alkain plazan. Eneko Martiarenaren oroimenezkoa.

11:00 Musika eskolako soinu-joleak.

12:00 Punttuka bertso eskolakoen eta Maizorri txalapartarien kalejira, Zumea plazatik.

12:00 Kantu kalejira, Plaza Moretik Zumea plazara. Euriarekin Makaldegian.

12:00 Beteranoen partida Ubitarten, Euskaldunaren eta Real Sociedad taldeen artekoa.

14:00 Auzo bazkaria Kale Nagusian. Norberak eraman behar du bazkaria. Mahaia antolatzaileen eskutik, baina auzolanean jarri eta kendu behar dira. Euriarekin, Makaldegian.

16:00 Gazteentzat abentura gunea.

17:00 Leizaran ibaiaren erreka jaitsiera.

18:00 Bakailao txapelketa Irunberri parean.

19:00 Elektropottote, Txosnagunetik.

22:30 Peña Santa Krutz elkartearen danborrada, kalez kale. Elkartetik abiatuta.

23:00 Bertso-rap Bekoplazan. Ondoren, Muxutruk.

APIRILAK 30

IGANDEA

08:00 Gautxorien argazkia Espigoian.

11:00 Urki dantza taldearen kalejira eta emanaldia Zumea plazan.

12:00 Udal Musika Eskolako Bandaren kalejira.

13:00 Bermouth musikatua Espigoian, DJ Ezeikielen eskutik. Euriarekin Bekoplazan.

17:00 Sagardo txapelketa eta Basataloak Zumea plazan.

19:00 Malkogarriyak.

21:45 Zezensuzkoa Kale Nagusian, Olajauna paretik hasita.

23:30 Bondi 22 eta Los Zopilotes Txirriaos musika taldeak. Ondoren, goizaldean, Gordas pimponeras disko-jartzaileen emanaldia.



SALKIN

bertatik bertara

GORA SANTA KRUTZ JIAKI

Eskerrik asko
merkataritza txikian
eta ostalaritzan
sinesteagatik!

HAN EDO HEMEN EROSI ANDOAINEN




LEIZARAN

Gestión Inmobiliaria



Gora Santakruzak!

Kale Nagusia, 53-behea. ANDOAIN
Tel: 943 591 856
Tel: 619 661 323
e-mail: info@inmoleizaran.com
www.inmoleizaran.com

- Etxebizitzak
- Lokalak
- Alokairuak



DENDAREN ORDUTEGIA:
09-00-15:00
astelchenetik
ostiralera



ESKAERAK JASOTZEKO: 08:00-17:00
Tel: 943 57 52 93  688 6185 48
urrats@urratsinprimategia.com
Zumea kalea, 19. Andoain.



KALE NAGUSIA, 55
20140 ANDOAIN
TEL.: 943 592 954



J A T E
T X E A
T A B E
R N A

ONDO
PASA
FESTETAN



Zopilotes Txirriaos taldeak Mexiko aldeko doinuak eskainiko ditu igande gauaz, Bekoplazan. ZOPILOTES

14:00 Koadrillen bazkarirako ate irekiera.

14:00 Koadrillen bazkaria Bekoplazan. Euriarekin Zumea plazan.

15:30 Bingo musikatua Bekoplazan. Euriarekin Zumea plazan.

16:30 Haurrentzat Potx magoa, Santa Krutz elizaren parean. Euriarekin, Zumea plazan.

17:30 DJ Bullen kalejira. Gauean, Bekoplazan emanaldia.

11:00 Meza santua Santa Krutz ermitan.

11:30 Eskopeteroen saioa Santa Krutz zubian.

11:30 Ezpata Dantza eta Brokel Dantzak, Santa Krutz zubian.

12:00 Txakolin dastaketa Espigoian.

12:00 Trikitilarien kalejira.

16:30 Puzgarriak Zumea plazan. Euriarekin Ondarretan.

19:00 Taberna arteko pintxo txapelketa.

19:00 Plaza dantza saio ibiltaria, Plaza moretik Zumea plazara.

21:45 Zezen suzkoa, Kale Nagusian.

Oharra: Azken orduko aldaketak egongo balira aiurri.eus eta sare sozialen bitartez jakinaraziko dira.

MAIATZAK 1

ASTELEHENA

10:30 Kros herrikoa Zumea plazan. 11:30tan haur krosa.

12:00 Txirrindulari gazteen lasterketa Kaleberrian.

16:30 Txorotxaranga umeentzat, Zumea plazatik abiatuta

16:30 Fit Gypsy Dance, Zumean.

18:00 Bizikleta festa, Zumean.

18:30 Herri danborrada Txosnagunetik abiatuta.

MAIATZAK 2

ASTELEHENA

11:30 Kuadrillen egunaren hasiera: txaranga eta kuadrillen elkartzea eta jokoak Bekoplazan.

MAIATZAK 3

ASTEARTEA

10:30 Dultzaineroen kalejira.

10:30 Banderaren jaitsiera Udal korporazioa, eskopeteroak eta txistulariak lagunduta.

10:30 Santa Krutz zubira iristean, Urkiko ezpata-dantzarien emanaldia.

Xarma
Andoain

GORA SANTAKRUTZAK!

Goikoplaza, 8-behea
ANDOAIN. 943 327 726

ORDUTEGIA:
Asteartetik ostegunera: . . . 09:00-19:00
Ostiraletan: 09:00-17:00
Larunbatetan: 08:00-13:00

Jai zoriontsuak!

ILEAPAINDEGI ETA ESTETIKA

Tatoó
Piercing
Laser
Depilazioa

adats

Belabi kalea, 10-behea
20140 Andoain - Tel.: 943 570 796

Aita Larramendi Ikastola
Jaietan ere ekin euskaraz

Gora Santa Krutzak

Txistoki Pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525 - Fax: 943 590 390
andoain@ikastola.eus
www.andoainikastola.eus

Ikastolen elkartea

DANENA

Ondo pasa Santakrutzetan!

Eguneko menua
Plater konbinatuak
Bokatak

Zumea, 22 - Tel.: 943 590 210 - Andoain



Olagain Udal Txistulari Elkarteak eta Alberto Agirre Abesbatza

Ostiral honetan, 20:00tan hasita, emanaldi berezia eskainiko dute Santa Krutz elizan

Erredakzioa ANDOAIN

Tradizioak garrantzi handia du jaietan. Herri eragileen artean, ibilbide oparoa egiten ari dira Olagain Udal Txistulari Elkarteak eta Alberto Agirre abesbatza. Bi taldeak elkartu eta auzotarrei emanaldia eskainiko diete, ostiral honetan. Emanaldian, nola ez, "Santa Krutz martxa" eskainiko dute. Jaiak izanik, kantu horrekin emango diote amaiera emanaldi bereziari. Dagoeneko, eskuragarri dago erreperitorioa. Honakoa: "Oroitzapena", "Minuetoa", "Kurruxko", "Amaio", "O voso galo comadre", "Despierta", "Itsasoa gara", "Primaderako liliak", "Euskalduna ereserkia", "Iluntzean" eta "Santa Krutz martxa".

Alberto Agirre Abesbatza eta Olagain Udal Txistulari Elkarteak lagunez inguratuta ariko dira. Tronpetarekin, Aingeru Zabala

eta Ander Egaña; pianoan, Miren Mujika; kaxoia joz, Txomin Ur-danpilleta; gitarrarekin, Javi Gestoso; baxuan, Joxema Setien; trikitilariarekin, Antton Arruti. Abeslaria Rebeca Gestoso izango da. Eta, horrez gain, Onditx Esnaola eta Jurgi Errandonea dantzari lanetan ariko dira.

Txistulariak eta dultzaineroak, Santa Krutz egunean

Txistulariak jaien hasieran eta Santa Krutz egunean ariko dira. 2020ko eta 2021eko edizioetan, pandemia tarteko, ez zen kalejirarik izan. Aurtengoa agintaldiko bigarrena eta azkena izango da. Olagain taldeko txistulariek Udal Korporazioa udaletxetik Santa Krutz elizaraino eramango dituzte maiatzaren 3an, 10:30ean hasita. Santa Krutz egunean ere, ordu berean, dultzaineroak kalez kale ibiliko dira.

Sagardo dastaketa eta pintxo lehiaketa, jaietan

Hitzorduen artean, otorduei loturikoek harrera ona izaten dute.

Apirilak 30, igandea

Zumeatarra elkartearen eskutik, eta arratsaldeko 17:00tan hasita, bertako edariak gozatzeko aukera izango da. Hamazortzi sagardogile hurbilduko dira XLII. Gabirondo memorialera. Hauek: Aburuza, Zabala, Izeta, Satxota, Gaztañaga, Mizpiradi, Sarasola, Bereziartua, Larrarte, Lizeaga, Petritegi, Itsas-Buru, Eguzkitza, Altuna, Elutxeta, Eula, Oianume eta Urdaira.

Maiatzak 3, pintxo lehiaketa

Bastero taberna da sari gehien lortu duena, baina aurtengoa ez dago lehiakideen artean. Hauek aurtengo partaideak: Tokitxo, Hiru, Urkiola, Trañerum, Irunberri, Txindoki, Gaztelutxo, Txuri Beltz, Muga, Amama Klaudia, Txitibar eta Txalaka. Arratsaldeko 19:00tan hasita, pintxo bikainak dastatzeko aukera izango da.



Mugimendu feministak adierazpena argitara eman du. AIURRI

Mugimendu feministaren adierazpena, jaien atarian

"Txosnagunean erasoan aurrean esku-hartzeko protokoloa birpentsatu eta lantzeko beharra ikusi dugu"

Mugimendu fesminista Komunitatea / ANDOAIN

Hilabeteak eman ditugu lanean, hausnarketetan, formakuntza-saio zein eztabaidetan, beste eragileekin elkarlanean... Eta gaur, hemen, Santa Krutz jaiak antolatzen ibili garen eragile zein norbanakook, protokoloa herriaren aurrean aurkeztu nahi dugu.

Erasoak ez dira jarrera isolatuak, sistema zisheteropatriarkal eta kolonialean bizi eta harremantzen garen momentutik, ekintza hauek estrukturalak dira eta norberaren ardura da jarrera horiek ez erreproduzitzea. Badakigu, jai giroa eta alkohola aitzakia gisa harturik, gainera, erasoak areagotzen direla. Beraz, aurtengoa ere, erasoan aurrean antolaturik gaudela garbi utzi nahi dugu. Egun bakoitzeko protokolo arduradunak egon-

go dira txosnagunean eta erasoan bat jasan, ikusi edota testigu izan bazara, barrara hurbildu eta beraiengana bide-ratuko zaituzte.

Garbi gelditu dadila, gainera, protokoloa sortu, landu eta jaietan antolatu beharraz nazkatuta gaudela. Protokoloa egiten dela, zuek, gizonok erasotzen duzuelako, beraz, hartu ardura. Guztiok gara jai giro osasuntsu, seguru, eroso eta askeak sortzearen erantzule, beraz, ez izan konplize eta ez badakizu egoten, ez etorri.

Autodefentsa transfeministaz armatuta gaudela aldarrikatu nahi dugu, antolatuta gaudela eta ez garela isilduko. Elkarzaintza erdigunean, gozamina eta gune erosoak eraikitzen jarraituko dugu, jai askeak nahi ditugulako denontzat.

Aurtengo festetan ere, hartu ardura eta zaindu jarrerak!



Tolkien, ingelesaren sinonimo Andoain

- Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua.
- Prestakuntza trinkoa: Cambridgeko azterketak ekainean eta uztailean.
- 2023-24 ikasturterako matrikulazioa zabalik

Gora Santakrutzak!

Ondarreta 7, behea. ANDOAIN. 943 300 839. 688 763 570. www.andoainenglish.com



Enkarguak jasotzen ditugu

arruti

943 593 777

Zumea 18, ANDOAIN

Handwritten signature



"Zailtasunak zailtasun, beste behin ere festak antolatu ditugu"

JAI BATZORDEA ANDOAIN

Herritarrek jaiak gozatzeko gogo bizia dagoela nabari dute. Neurgailu ona dute hori adierazteko, azken asteotan saldu dituzten lauhun kamisetak

Mikel Arberas ANDOAIN

Santakruzak antolatzen noiz hasten zarete?

Santakrutzen antolakuntza bi zatitan banatuko genuke. Bate-tik, urrian, gutxi gorabehera, burokraziarekin eta baimen-eskaerekin lanean hasten gara. Ez da lan zaila, baina denbora eskatzen du eta ezinbestekoa da. Bestetik, Jai Batzordea ur-tarrilean biltzen hasten da, normalean, astean behin.

Horrela esanda, denbora soberan dagoela dirudi, baina urtarriletik hona asteak segituan igarotzen dira, eta, gutxinaka, guztia lotzen joan behar gara. Beraz, erlojupeko lana dela esango genuke.

Antolakuntza taldeak zenbat kide biltzen ditu?

Taldea hamabi bat kide osatzen dugu, adin tarte ezberdinetakoak. Talde handia dirudien arren, kide bakoitzak bere egoera pertsonala du; hau da, batzuk gurusoak dira, besteek lana dute, eta badira Andoainen bizi ez direnak ere. Horiek horrela, oso zaila da maiztasunarekin taldeko gehienok elkartzea. Era berean, azpimarratu beharra dago, zereginak nahiko banatuak di-

tugula. Zailtasunak zailtasun, beste behin ere festak antolatu ditugu.

Egitaraueko zein ekitaldi nabarmenduko zenituzkete?

Aurtengoan, haurrei zein gazteei tarte handiagoa eskainiko diegu; esaterako, abentura gunee bat jarriko dugu larunbat arratsaldean edota haurrentzako Txorotxaranga gozatzeko aukera egongo da astelehenean. Horrez gain, Zezensuzkoak kaleak zeharkatuko ditu bi egunetan.

Helduentzat ere izango dira berrikuntzak, esaterako, igan-

dean egongo den Bermouth musikatua edota gautxorizontzako txaranga. Egitarauan izango dira ere Fit Gypsy Dance taldekoak. Beraz, helduek ez dute aspertzeko astirik izango.

Azpimarratu nahiko genuke, aurtengoan ekitaldiak lotzea kosta zaigula, ezezko ugari jasota, ero moduan lanean aritu baikara; adibidez, kontzertuak hitzartzeko zailtasunak eduki ditugu.

Egitarau oparoa antolatzearekin batera, kamisetak, banderolak eta zapiak ere salgai jarri dituzue...



Arruti, Tolo, Zapirain eta Iburguren. AIURRI

Egia esan, arrakasta handiko ideia izan da. Oker ez banago lauhundik gora kamiseta saldu dira, eta beste hainbat zapi eta banderola. Herritarrek gogo bizia dute Santakrutzetarako, eta nabari da.

Taldean hainbat kide egoteaz gain, eragileekin ere harremanetan zaudete une oro, ezta?

Hori da. Jai Batzordea egitarauaren antolakuntzaz arduratzen den arren, eragileekin lanean aritzen gara; besteak beste, tabernekin, elkarteekin edota herritarrekin, beste batzuen artean.

Udalarekin ere kontaktuan egoten gara ia egunero, eta, aurtengoan, hartu-emana emankorragoa eta arinagoa izan dela azpimarratu nahiko genuke. Taldetxoa biltzen garen arren, jaiak guztion artean antolatzen ditugu.

Aipamen berezia egin nahiko genioke Kuadrilla Eguneko antolakuntza taldeari. Asteke egun berezietakoaren kudeaketaz arduratzen direlako, eta aurtengoan ere, urtero bezalaxe, lan ederra egin baitute. Gainera, gaztez beteriko lan-talde oparoa osatu dute.

Gora Santakruzak!
Zapiri Beltz
Taberna
Kale berria 9. Andoain. 943 30 10 31

Gabilondo
AHOLKULARITZA
Gora Santakruzak!
Kale berria, 1-behea. ANDOAIN
Tel./Faxa: 943 303 025
asesoriagabilondo@yahoo.es

www.txapelasybordados.com
www.txapelabordatuak.eus
Keinu
Kale Nagusia, 12.
ANDOAIN. 637 283 224
keinuandoain@gmail.com

Pintxoak **Kopak**
muga
Taberna
Ondo pasa Santa Krutz jaietan!
Zumea plaza, 1. ANDOAIN - 943 47 63 94



GONBIDAPENA

JOXE RAMON ANSAREN ADISKIDEAK ETA LAGUNAK ANDOAIN

Gazte bat lurrean aurkitu dugu...



AIURRI

Joxe Ramon Ansa Etcheberria, 17 urteko gaztea, Upategi (Buruntza auzoa) baserriko

semea. Gizaki apala, lagunena lagun... Adin beretsuko edozein gazteren pare, bizitza oso bat aurretik izanda, ilusioz beteriko pertsona; bizitzaz gozatu behar zenean lagun-giroa eta festa gogoko zituena, eta aldi berean, bazekiena arduratsu izaten bizimoduko eginbeharrak tokatzen zirenean ere.

1979ko maiatzaren 5eko gauean (larunbat-igandea), ikastolako ikasle garaietan egindako lagun-kuadrillarekin batera Santa Krutz jaiekin gozatu ostean, gauerdia aldera, oinez erretiratu zen etxera;

izan ere, hurrengo goizean aita eta biek baserriko lanei ekin behar zieten. Etxerako bidean zihoala, pistolaz mehatxatuta auto batean sarrarazi zuten. Xoxokarako bidea hartu ostean, Azkonobieta baserriatik berrehun metro gora, bide-bazterrean, tiroz erail zuten.

Helburu argia zeukaten egileek: samina eragin herriko festekin gozaten ari zen gizarteari, euskal gaztediari batez ere. Eta mina ez ezik, izuaren mezua ere zabaltzea, diktadura frankistatik irten berritan,

eguneroko bizimodua, lagunartekotasuna, festak zein kultura askatasunean bizitzeko irrikaz zegoen gizarteari.

Joxe Ramon Ansa, Buruntzaldean estatuko aparatuen konplizitatearekin mugitu ziren ultraeskuindarren biktimetako bat izan zen. Gogoratu beharko genituzke beste zazpi lagunak: David Salvador Bernardo, Tomas Alba Irazusta, Felipe Sagarna Ormazabal, Migel Maria Arbelaiz Etcheberria eta Luis Maria Elizondo Arrieta,

Joakin Antimasbere Eskoz, eta, Jabier Ansa Zinkunegi.

Santa Krutz jaietan murgilduta gaudelarik, Joxe Ramonen senideek, adiskideek, bizilagunek nahiz herritarrek ospakizunekin gozatu nahi genuke, eta, aldi berean, ez genuke ahantzi nahi harenganako oroimena. Gogoan daukagun bitartean, bizirik jarraituko baitu gure artean.

Gogorapen ekitaldia oroitarraren (Xoxokako bidean) aurrean, maiatzaren 6an, larunbatarekin, eguerdiko 11:00etan.

Santakruz Harri Txikia


Asko dira 54 eta 80 kilogramoko harriarekin entrenatzera joan direnak; gutxiago, berriz, harria jendez beteriko plazan altxatzera animatu direnak. Aurten, iazkoa baino talde handiagoa eta oparoagoa osatu da, kide berriekin eta lehiatzeko gogo biziekin. Santakruztei hasiera emateko lehen ekitaldi jendetsua izango da.



AIURRI

Futbito txapelketa

Ostiralean, Santakruz Harri Txikiaren ostean, futbito finala jokatu da Ondarreta ikastetxean. Owltown taldeak Eramos Buenos FC taldearen aurka jokatu du, 20 minutuko bi zati izango dituen norgehiagokan. Jendetza espero da ikastetxeko zelaian herritarrek eta lagunak ikusteko.



AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz

943 593 627
Ondarreta kalea,
3- beheko
ANDOAIN

- Plater konbinatuak
- Bokatak
- Pintxoak

Ondo pasa jaietan!

Ondarretza

AUTOKARABANA ETA KANPERREN ALOKAIRU ETA MANTENUA


IKAI VANS
EST. 2022

Balastrain Matxinea 4, 9 pabilioi
20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tfn. 94309813
info@ikai vans.com

ESKUBALOIA Irabaziz ekin diote igoerako ligaxkari

Leizaran Ernio Inmobiliaria taldeak Euskal Ligarako igoera fasea bikain ekin dio, Ordizian

garaipena eskuratuz (Ordizia 30-32 Leizaran). Lagun zaharrak dira ordiziarrak, ligan elkarren aurka aritu baitira. Asteburuan Urdaibai bizkaitarrak hurbilduko dira Allurraldera. Larunbatean izango da, 17:30ean hasita.



AIURRI

Zizurkilgo Duatloia

DUATLOIA Parte-hartze handia izan zen Zizurkilgo Duatloian. Aimar Murua andoaindar gaztea hirugarren postuan sailkatu zen. Zumeatarra taldeak, bestalde, ordezkari zabala izan zuen proban. Orokorrean kirolariak pozik zeuden Zizurkiloren lortutako emaitzekin, bakoitzak bere helburu pertsonalak lortuta.



@OTO_TOURS



Ansa urnietarra. ORIAMENDI

Goikoetxea-Barrenetxea eta Ansa-Zaldua garaile

ERREMONTEA Ikusgarri aritu ziren lau bikoteak Galarretan, Sagardoaren Txapelketan

Erredakzioa URNIETA Lehen partidaren Goikoetxeak eta Barrenetxeak Ezkurra-Zubiri bikotearen aurka jokatu zuten (2-1). Oso partida bizia, ziragarria eta parekatua izan zen. Lehen set-ean tanto bakarragatik irabazi zuten garaileek. Bigarren set-a galdu eta azken bost tantoetan erabaki zen partida.

Bigarren norgehiagoka ere bikaina izan zen. Lehenengo set-ean Ansa eta Zaldua izan ziren garaile (15-10). Bigarrenean, berriz, Segurola eta Juanenea (12-15). Bost tantoko azken partidatxoan jokatu zen lehiaren jarraitzeko ezinbesteko puntua. Une horretan aise aritu ziren Ansa eta Zaldua.

Urnietako senior mailako taldeen asteburua, on-ona

ESKUBALOIA Mutilek kopan garaipena eskuratu zuten; neskek berdinketa eta garaipena asteburu berean

Erredakzioa URNIETA Urnieta Quel Abogados emakumezkoen senior taldeak bi norgehiagoka jokatu zituen asteburuan. Lehen, ostiral arratsaldean, Orioko Zuhegan taldearen aurka (16-16). Maila ona erakutsi zuten, baina puntu bakarrekin itzuli behar izan ziren etxera. Asteburuko bigarren partida bestelakoa izan zen, garaipena lortu baitzuten Ereintza Beissier taldearen aurka (16-18). Errenterriarrak ia partida osoan aurretik izan ziren arren, urnietarrek mailari eutsi eta, azken mementoan, aurre hartzea lortu zuten. Horiek horrela, asteburu gogor baten ostean, ezinbesteko 3 puntu lortu zituzten gorritxoek.

Gizonezkoen Urnieta Artola Harategiak ere garaipen ikusgarria lortu zuen Hernaniko taldearen aurka (20-33). Urnietarrak lehen minututik gailendu ziren, orain arte Euskal Ligan edukitako eskarmentua erakutsita. Atsedendira partida ongi bideratuta iritsi ziren, zortzi goleko aldearekin (9-17) eta, bigarren zatian, aise lehiatu zuten gorritxoek. Emaitza ona Kopan aurrera egiteko.

Leizaran Lanbroa taberna Ligako azken jardunaldian, liderraren bisitaldia jaso zuten. Ereintza nagusitu zen (22-26). Sailkapenean, Leizaran 9. postuan da.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 27

ANDOAIN Erakusketa

Euskaldunaren mendeurrenako erakusketaren irekiera ekitaldia. Maiatzaren 20ra arte zabalik. 18:30, Bastero, erakusketa aretoa.

ANDOAIN Deialdia

2022-2023 ikasturtean euskara ikasteko dirulaguntza deialdia. Informazio osoa andoaindarraeuskaraz.eus webgunean.

Azken eguna: Ekainak 16.

URNIETA Deialdia

Eguzkitan Blai! eta Kirol Udalekuetan izena-emateko epea zabalik dago. Izen-ematea Bertan bulegoetan eta Lekaion.

Azken eguna: Maiatzak 5.

URNIETA Dokumentala

Elbira Zipitriari buruzkoa. 19:00, Sarobe.



Dokumentalaren irudian, Elbira Zipitria ikasle gazteekin. AIURRI

ANDOAIN, URNIETA Dokumentala

Elbira Zipitria Irastortza hezitzaile eta euskaltzale aitzindaria izan zen. Haren bizitzaren pasarte fikzionatuen laguntzaz, jatorria, konpromiso politikoa, Iparraldera ihesa, itzulera eta jarduna kontatuko dute. Euskal Herrian barrena aurkezten ari dira dokumentala.

Apirilak 27, osteguna. 19:00, Sarobe. Urnieta. Maiatzak 11, osteguna. 20:00, Bastero. Andoain.

OSTIRALA 28

ANDOAIN Santakruzak

Apirilaren 28an hasi eta maiatzaren 3ra bitarte. Gehigarri osoa, astekarian.

16:00, haur pregoia 19:00, helduen pregoia.

ASTEARTEA 2

ANDOAIN Plenoa

Udalaren osoko ohiko batzaraldia. 19:00, Udaletxea.

OSTIRALA 5

ANDOAIN Gure Zirkua

Sarrerak salgai: Gurezirkua.eus. *Maiatzak 5-13, Etxeberrieta.*

LARUNBATA 6

ANDOAIN Ekitaldi nagusia

Euskaldunaren mendeurrenako ekitaldia. Aurretik eskulturaren irekiera-ekitaldia.

11:30, Ubitarte zelaia. 12:00, Bastero.

LARUNBATA 13

ANDOAIN Ospakizuna

Euskaldunaren mendeurrena biltzen duen ikus-entzunezkoa eskainiko dute, Basteron. Ondoren, emakumezko beteranoen arteko partida, Ubitarte futbol zelaian. Eta, segidan, herri bazkaria Aita Larramendi ikastolako jolastoki estalian. Izena-emateko aukera dago oraindik.

12:00, Bastero. 12:30, Ubitarte. 14:00, Aita Larramendi ikastola.



EUSKALERRIAIRRTATIA

Antia literatur lehiaketa

On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketaren XXIX. edizioko sari-banaketa ekitaldia ostiral honetan izango da. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da Sarobe arte eszenikoen gunean. Ekitaldia Luix Mitxelenak aurkeztuko du, eta Olatz Salvadorren musikarekin girotuta egongo da. Orotara, hiru kategoria egon dira aurten, haurrena, gazteena eta helduena.



AIURRI

Kantazaun taldearen irteera

Kantu-kalejirarekin, herriko kaleak zeharkatuko dituzte, ostiral honetan. Abiapuntua arratsaldeko 19:00etan izaten da San Juan plazan, eta, ohiturari jarraiki, bi orduko itzulia emango diote herriari. Euskal kultura eta euskalzaletasuna sustatzeko ekimena da Kantazaun, bide batez, Urnieta kaleak alaitzen dituen.

ODOL-EMAILEAK



HURRENGO HITZORDUAK

Maiatzak 8, astelehena.

16:30-20:30. ANDOAIN, Anbulatorioa. Hitzordua hartzeko: 943 007 884.

Maiatzak 22, astelehena.

16:30-20:30. URNIETAN, Gaztelekuan. Hitzordua hartzeko: 943 007 884.



Urnieta
udala

Andoaingo eta Urnietako hautes-zerrendak

UDAL HAUTESKUNDEAK Maiatzaren 28ko Udal hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi politikoen zerrendak argitaratu ziren, asteazkenean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Behin-behinekoak dira oraindik. Ofizial bilakatuko dira maiatzaren 2an

Erredakzioa ANDOAIN

Alderdiek eta hautes-taldeek apirilaren 24ra bitarteko epea zuten zerrendak aurkezteko. Apirilaren 26an, asteazkenean, Gipuzkoako Boletin Ofizialean argitaratu ziren. Behin-behineko zerrendak dira. Behin betikoak maiatzaren 2an argitaratuko dira.

ANDOAINGO HAUTES-ZERRENDAK

Ezustekoa eman du Burujabetza Andoain hautes-zerrendak. Sinadurak biltzen ibili ziren aurreko egunetan. Boletinean agertutako hurrenkeran, hautes-zerrendak:

EH Bildu

1. Andoni Alvarez Lete; 2. Marta Lasa Goñi; 3. Xabier Fondon Pajares; 4. Garazi Usandizaga Zubiria; 5. Jesus Javier Mateo Turrillas; 6. Haizea Barandiaran Zubillaga; 7. Diego Barrasa Ruiz (Independentea); 8. Larraitz Arriola Larrarte; 9. Aitor Ibar-guren Larrarte; 10. Miren Maitte Ansa Eceiza; 11. Estebe Lopez De Munain Txapartegi; 12. Maria Concepcion Arratibel Buenetxea; 13. Pello Oria Ponce; 14. Izaskun Beraza Ormazabal; 15. Roge Miguez Rodriguez; 16. Uxune Tena Ugarte; 17. Juan Jose Arregi Pagola; Ordezkoak: 1. Miren Dominguez Elozegi; 2. Asier Aranburu Sanchez; 3. Inma Laskibar Erkizia.

PSE-EE

1. Maider Lainez Lazcoz; 2. Jose Luis Verdasco Gutierrez; 3. Ascen Parron Peguero; 4. Aritz Alcain Lopez; 5. Maria Belen Moreno Mendez; 6. Jose Antonio Fernandez Da Purificacao; 7. Mercedes Luis Alfonso; 8. Daniel Garcia De La Calle; 9. Aintzane Diez Vicente; 10. Oscar Mendo Gonzalez; 11. Raquel Caballero Madrid; 12. Jose Francisco Muñoz Muñoz; 13. Luisa Fuentes Marquez; 14. Jose Igna-

cio Apestegui De La Torre; 15. Maria Almudena Lamaza Vadillo; 16. Francisca De La Calle Chapinal; 17. Estanis Amuchastegui Arregui.

EAJ-PNV

1. Imanol Goenaga Egibar; 2. Idoia Mikelez Alonso; 3. Joseba Poza Aranzadi; 4. Sagrario Ruiz Fernández; 5. Andoni Baltasar Agirrezabalaga; 6. Mikel Urdangarin Castro; 7. Garbiñe Guedejo Ezenarro; 8. Iñaki San Buenaventura Salaverria; 9. Juana Ikutza Arias; 10. Alexander Huitzi Alfonso; 11. Merte Perez Campoamor; 12. Iñaki Irulegi Unzalu; 13. Agurtzane Irigoras Urretabizkaia; 14. Ramon Carrera Berasategi; 15. Elena Eizagirre Etxeberria; 16. Ainhoa Elola Aramburu; 17. Jose Antonio Rodríguez Ranz (Independentea). Ordezkoak: 1. Maria Jose Izagirre Iturzaeta; 2. Aritz Amondarain Ibar-guren; 3. Elisabet Ezenarro Ganzarain.

PP

1. Maria Garrapiz Rivas; 2. Teodoro Pastor Romero; 3. Gustavo Blanco Fernandez; 4. Maria Pilar Gracia Jimenez; 5. Alfonso Santibañez Canales; 6. Cesar Fraile Sanz; 7. Jesus Camara Perez; 8. Belen Pastor Romero; 9. Ana Belen Garcia Martinez; 10. Rafael Valdenebro Bello; 11. Julia Sintes Pons; 12. Ainhoa Jañez Estrada; 13. Laura Gutierrez Barreno; 14. Luis Garcia Torrico; 15. Manuel Jimenez Jimenez; 16. Maria Elena Castaño Valencia; 17. Gabriel Mato Adrover. Ordezkoak: 1. Rosa Enseñat Bueno.

ELKARREKIN PODEMOS

1. Jose Maria Iparragirre Balda; 2. Teresa Santana Rubio; 3. Olga Hernandez Montero; 4. Jose Ignacio Ibañez Alonso; 5. Maria Del Coro Barbero San Jose; 6. Raul Mendez Laso;

7. Maria Romana Valeria Viguera Fernandez; 8. Virginia Ayerbe Iribar; 9. Maria Luisa Roig Jalon; 10. Valeriano Hernandez Olaya; 11. Joseba Oteiza Arabolaza; 12. Maria Del Socorro Rodriguez San Jose; 13. Maria Soledad Blanca Sanchez; 14. Gabriel Rivero Diaz; 15. Guillermo Hernandez Montero; 16. Rene Velazquez Hernandez; 17. Marcos Alberdi Aguado.

BURUJABETZA ANDOAIN

1. Patxi Aznar Bellido; 2. Maite Iriondo Azcona; 3. Elvira Sanz De Pablos; 4. Joaquin Beroz Iztueta; 5. Antonia Abello Vila; 6. Jorge Mourinho Fernandes; 7. Maria Pilar Otero Garcia; 8. Eduardo Lezaun Abad; 9. Manuela Velez Gonzalez; 10. Miguel Camarero Nuñez Astrain; 11. Julene Miren Albisu Larrañaga; 12. Jose Javier Ignacio Lopez Yaben; 13. Antonio Valle Flores; 14. Iñaki Arriaga Goitia; 15. Iñaki Zulaika Ezenarro; 16. Santiago Muñoz Sanchez; 17. Maria Lidia Muñoz Nuñez.

URNIETAKO HAUTES-ZERRENDAK

Elkarrekin Podemos eta ezkerreko alderdien koalizioa izan da azken orduko ezustekoa. Boletinean agertutako hurrenkeran, hautes-zerrendak:

EH Bildu

1. Eukeni Garmendia Martinez; 2. Maria Angeles Lasarte Elice-gui; 3. Xabier Olan Martin; 4. Nagore Brel Gutierrez; 5. Ramon Urdangarin Iriondo; 6. Aranzazu Fernandez Gutierrez Del Olmo; 7. Xabier Yurramendi Garmendia; 8. Miren Aintzane Ostolaza Etxaniz; 9. Ander Goikoetxea Ugalde; 10. Amets Orbegozo Echeverria; 11. Gorka Iturbe Mujika; 12. Ixone Bereziartua Cornago; 13. Mikel Miren Legarreta Astiasaran. Ordezkoak: 1. Irati Zinkunegi Ansa; 2. Jokin

Lizeaga Mitxelena; 3. Hanitze Jover Lasa.

EAJ-PNV

1. Jorge Segurado Iriondo; 2. Agurtzane Mercader Ubillos; 3. Ana Pozas Rodriguez (Independentea); 4. Ainhoa Ostolaza Etxaniz; 5. Mikel Martiarena Barkaiztegi; 6. Mikel Artola Pagola (Independentea); 7. Iñaki Muro Fernandez; 8. Manuel mayoz Ostolaza (Independentea); 9. Maribel Zumalakarregi Alonso; 10. Amaia Vaquero Montero; 11. Beñat Goenaga Arruabarrena; 12. Maria Pilar Sarasola Bulman; 13. Guadalupe Martiarena Lizarazu. Ordezkoak: 1. David Rosco Jorge; 2. Rosa Gonzalez Leal; 3. Mikel Pagola Tolosa.

PP

1. Alvaro Lopez De Echazarreta Alonso; 2. Aitor Iriondo Unanue; 3. Luis De Silva Villalon; 4. Esther Covadonga Muñiz De La Torre; 5. Nagore Comesaña Filgueira; 6. Juan Manuel Martinez Casero; 7. Blanca Cordoba Nieto; 8. Ana Maria Tamayo Ureña; 9. Francisco Javier Fabra Grano; 10. Antonio Guijarro Sanchez; 11. Ana Maria Gonzalez Revuelto; 12. Raquel Sanchez Mendez; 13. Tomas Burgos Betea.


PSE-EE

1. Hermenegildo Gonzalez Moran; 2. Consuelo Frutos Gonzalez; 3. Itxaso Oronoz Hernandez (Independentea); 4. Patricia Ainhoa Val Hevia; 5. Jose Guirado Nov; 6. Maria Lourdes Navais Paino (Independentea); 7. Ruben Salas Frutos; 8. Leyre Gonzalez Corchero; 9. Miren Jasone Santos Curiel (Independentea); 10. Juan Manuel Jaraiz Avila; 11. Maria Jose Frutos Gonzalez; 12. Jose Luis Rodriguez Chans; 13. Paula Torres Busto.


ELKARREKIN PODEMOS

1. Joanes Fiel Echeverria; 2. Leire Arto Soto; 3. Ander Souza Ansa; 4. Celia Martinez De Paz; 5. Jose Ignacio Gomez Murguialday; 6. Ana Ramos Vallecido; 7. Ruben Martinez De Paz; 8. Nerea Gonzalez Gonzalez; 9. Jose Luis Del Cid Dorao; 10. Olga Maria Gaite Gil; 11. Juan Mari Tomasena Alzuri; 12. Antonio Zubia Zubimendi; 13. Rhizlane Zouitine Lamriss.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak, Malen!
Apirilaren 25ean, 16 urte beteko dituzu, egun polita igaro dezazula! Askok maite zaitugu!



ANDOAIN
Zorionak Pello
Apirilaren 29an 12 urte!!! Irribarre goxo horrek betirako iraun diezazula! Maite zaitugu!



ANDOAIN
Ane Amutxastegi
Urte askuan Ane, maiatzaren 3a ondo pasa. Muxu asko etxeko partetik.



ANDOAIN
Ekhiarra Arrizabalaga Amenabar
Urteko bat gure eguzki partikularrak goxatuta. Zorionak! Amatekoen kuadrila



ANDOAIN
Zorionak, Mario!
Apirilaren 27an 5 urte beteko ditu Mariok! Aiurritik gure zorionik beroenak taldeko txikiari! Jarraitu bazterrek loratzen!



ANDOAIN
Jon Etxezarreta Jauregi
Jonek 10 urte beteko ditu maiatzaren 4an. Zorionak txapeldun! Muxuak etxeko partetik.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

ESKELAK
JARTZEKO:
943 300 732
edo
publicitatea@aiurri.eus

**Eskelak
Aiurri:
90 euro**



Aiurri.eus gunea, egunero zabalik



"Irunberri", liburuaren aurkezpena



Santa Krutz jaien jarraipena



Urki dantza faldearen emanaldia



Loatzoko mendi igoera eta jaietsiera



Zizurkilgo Duatloia



Hautes-zerrenden aurkezpenak



Gorostidi harria



Kulturartekotasuna ardatz duen ipuin-kontaketa saioa



Poxta Zahar elkartearen urteurreneko ospakizunak